

ARRANTZA

Handiak txikia jaten du

Arrantza handi eta industrialak defizitarioagoa da sozialki, ekonomikoki eta ekologikoki arrantza txikiaren alboan; arrantza txikiak baino dirulaguntza publiko dezente gehiago jasotzen ditu; eta are, soilik laguntza horiei esker bizirautean du. Horixe erakutsi du Frantziako arrantza ereduak aztertu dituen ikerketa batek, hain zuzen, gurean ere arrantza txikia desagertzen ari denean.

 LUKAS BARANDIARAN

Frantziako Bloom elkarteak gidatu du ikerketa. Frantzian, baina baita haratago ere, itsasoaren eta arrantza artisauaren defentsan dabil gobernuak kanpoko erakundea. Kasu honetan, Biddarteko Biharamunen Lantegia ikerketa parte-hartzaileen kooperatibaren laguntza eduki du. Hainbat arrantza ereduren eragina, eraginkortasuna eta jasagarritasuna ikertzeko, ikuspuntu ekologikoa, sozioekonomikoa eta ekonomikoa uztartu dituzte.

Frantziako hainbat tokitako datuak bildu dituzte, batez ere Atlantikoaren ipar-ekialdean aritzen diren itsasontzi txikiz osatutako ontzidienak. 2.720 ontzi dira eta Frantziako lehorreratzeen %70 ordezkatzen dute.

Emaitzak oso ezkorrak izan dira, batez ere industria arrantza handiarentzat eta hondoko arraste-sare ontzientzat: ekologikoki oso suntsikorrek dira, besteren artean, espezie oso ustiatuentzat, ale gazteentzat eta itsas hondoarentzat; bereziki CO₂ isurketa ugariaren erantzule dira; lanpostu eta balio erantsi gutxi sortzeko gaitasuna daukate, batzuetan

defizitarioak izatera iritsi arte; horrenbeste da horrela, ezen ez balitz jasotzen dituzten dirulaguntza publiko ugari esker, ez lirakeke errentagarriak izango.

Arrantza txiki eta artisauak kontrako emaitzak jaso ditu adierazle horietan guztietan, espezie zaurgarrien (itsas txori eta ugaztunak) harrapatzeetan izan ezik. Hala beraz, “zentsugabeberia ekonomiko, sozial eta ekologikoz” ohartarazten du txostenak.

Leo Belaustegi 12 milia elkarteko kidea da, itsasbazterreko lehenengo 12 miliak babestearen aldeko elkartekoa. Mutrikuko arrantzale ohiari galdetu diogu gaiari buruz, eta ondokoa adierazi du: “Txosten oso aberatsa da, irakurritako sakonenetarikoa. Datu asko biltzen ditu. Oso ondo azaltzen du nola dauden gure itsaso eta kalak”.

Bloom elkarteko arrantzaren trantsizio sozio-ekologikorako proiektu zientifikoen koordinatzailea da Léna Fréjaville. Azaldu du dezente zabaldu dutela ikerketa, besteren artean Euskal Herriko arrantzale txikien artean, eta momentuz ez dutela berau ezbaian jartzzen duen argitalpenik aurkitu.

Datuok zeresana eman dezakete Euskal Herrian, momentu honetan. Alde batetik, itsaso kudeaketa eta arrantza ereduaren eztabaida mahai gainean dagoelako Getariako (Gipuzkoa) zimarroi haztegiengatik eta Eusko Jaurlaritzak kostalderako jaso berri dituen konpetentzien transferentziagatik. Baina bestalde, eta oro har, itsasoek eta bertako arrantzek duten egoera kaskarragatik.

20 URTEAN ARRANTZA TXIKIA ERDIRA EUSKAL HERRIAN

Krisi eko-soziala hainbat modutan eragiten ari da itsasoengan: urak azidotzea, oxigeno galera, ura berotzea, eta korronteetan aldaketak, besteak beste. Horrekin eragin handia eduki du itsasoetako biomasetan; esaterako, ozeanoen %55 arrantza industrialaren presio arriskupean dago, eta Ipar itsasoan 16 kg baino gehiagoko bizidunak %99 murriztu dira industrializazioa hasi aurretik.

Gurera etorrira, arrantza txikiaren egoerari buruz argi dio Belaustegik: “Gipuzkoako eta Bizkaiko arrantza txikiaren egoera oso kaskarra da. Arrantza industrialak gaina hartu dio, izugarritzko



Ingurumen aztarna



% 84

Neurriz kanpoko ustiapenaren ehuneko hori arraste-sare eta senu handietatik dator.

**ARRANTZATURIKO
2 ARRAIN GAZTETIK
1 BAINO +**

... arraste-sare handi edo senu handi batek harrapatzen du.



% 90

Arraste-sare eta senu handiak dira itsaso-hondoan urraduraren kaltearen ia eragile bakarrak.



% 60

**NAHI GABEKO
HARRAPATZEAK**

... arte geldoek espezie zaugarriak harrapatzen dituzte (nasek izan ezik), beste arrantza motek baino gehiago.

% 57

da hondoko arraste eta senu ontzi handiek isurtzen duten CO₂ ehunekoak.

txikizioa ekarri du, eta ondorioz, itsasoan dagoen arrain biomasa asko gutxitu da. Gainera, itsasontzi txikietan ez dago belaunaldi berririk, itsasontzi txikiek errentagarritasun gutxi baitaukate horiek erakartzeko. Amaierara doan sektorea da". Ikerketak ere bat egiten du irakurketa horrekin, Frantzia itsasbaterreko arrantza, txikiena eta artisauena, ontzien %70a, horren gainbehera handia bizitzen ari da. Desagertzera bidean dagoela esan daiteke.

Errealitate hori zenbakitan jarrita, Belaustegiren arabera, Euskal Herrian arrantza txikiaren egoera muturrekoa da: "20 urtean erdira murriztu da. 52 bat itsasontzi geratzen dira egun, eta horietan 100 arrantzale baino gutxiago. Gainera, horietako askok erretiroa oso gertu dute, eta laster arrantza utzi egingo dute, inork ez diolarik itsasontziaren jardunari eutsiko". Frantzia ere, 1995 eta 2020 artean, arrantza txikiaren flotaren %30 galdu da, eta 2020 eta 2021 artean bakarrik, arrantzale txikien %20k utzi du".

ARRANTZAK ONDORIO SOZIAL ETA EKOLOGIKOAK ERE BADITU

Egoerak hala eskatuta, hainbat elkarre eta eragileren elkarlanaren ondo-

"[Arrantza txikian] Euskal Herrian 52 bat itsasontzi geratzen dira eta ehun arrantzale baino gutxiago"

Leo Belaustegi

12 milia elkarteko kidea

rio izan da txosten hau. Aipatutakoez gain, The Shift Project karbono-osteko ekonomian aditua den hausnarketa taldearekin elkarlanean antolatu dute proiektua. Hala, ikerketa egiteko Frantziako Agro Institut, AgroParisTech eta Zientzia Sozialetako Goi Mailako Ikasketak Eskolako (EHES) arlo anitzetako ikerlariak bildu dira.

Hain zuzen ere, hainbat arlotako adierazleak bildu ditu diziplinarteko perspektiba integratzailearekin. *Karbono balantzea* ideian oinarrituta, txostenak arrantza ontzidien *itsas balantzea* ebaluatu du, aldi berean aztertuz haien jardunak dituen ondorio ekonomikoak, sozialak, baina baita ingurumenean dituen eraginak ere. Bereziki azpimarratu dute arrantzaren sektorea jada ezin dela aztertua izan soilik produkzioaren prisma-tik, baina hori ere kontuan hartu behar dela. Eta hori litzateke, haien esanetan, azterketaren berrikuntzetako bat. Emaitzetatik haratago, metodologian datza ekarpena, eta arrantza "iraunkorraren" oinarria aurkitzeko hamar adierazle proposatu dituzte.

HAMAR ADIERAZLE EKOLOGIKO, SOZIAL ETA EKONOMIKOAK

Horien artetik bost ingurumen adierazleen artean kokatu dituzte: *neurritz kanpoko ustiaketa* aztarna, arrantza mota bakoitzak neurritz kanpo ustiaturiko stocketatik lehorreratzten duen tona kopurua; *arrain gazte* aztarna, ontzidi bakoitzak arrantzatzen duen arrain gazte kopurua; *itsas hondoan urradura* aztarnak arrantza flota bakoitzak arran-



2 aldiz+

Balio erantsia lehorreraturiko tona bakoitzeko: arte geldo txikiak, hondoko arraste-sare eta senuakiko, bi aldiz balio erantsi gehiago sortzen dute.



ERRENTAGARRITASUNA ETA KAPITALA:

inbertituriko kapitala kontuan hartuz, arraste-sare eta senu handien (24 m baino +) errentagarritasuna arte geldo txikiena baino 3 eta 4 aldiz apalagoa da.



50 ETA 75 ZENTIMO ARTEAN

... arrantzuriko kilo bakoitzeko hondoko arraste-sare eta senuak eskuratzen duten dirulaguntzaren zenbatekoa. Beste flotentzako zenbatekoa kilo bakoitzeko 30 zentimokoa da.

2/3 ALDIZ GUTXIAGO

Harrapatze maila berdinerako, hondoko arraste-sare eta senu handiek arte geldo txikiak baino 2/3 arteko enplegu gutxiago sortzen dute.

LAN KOSTUA

Marinelaren soldata 50.000 eta 85.000 euro artean dago, batez beste. Hala ere, hondoko arraste-ontzi industrial bateko arrantza baten enpleguak 60.000 euro inguruko zeharkako dirulaguntza eskuratzen du, eta tresna geldoa erabiltzen duen arrantzaileak 9.000 eta 14.000 euro artean.

ITURRIA: "Norabidez aldatu: arrantzaren trantsizio sozial-ekologikoaren alde" ikerketa, Blom elkarte.

tza-erremintak (arraste-sare, draga edo senu daniar) arrastaka erabiltzen ditue-nean hondatzen duen eremua neurtzen du; *espezie zaugarriak* aztarnak arrantzazko flota bakoitzak espezie zaugarriak harrapatzeko duen arriskua kuantifikatzen du, esaterako itsas ugaztunak edota itsas txoriak; eta azkenik, *karbono aztarnak* negutegi efektuko gasen isurketa neurtzen du ontzidi bakoitzaren CO₂ isurietan oinarrituta.

Bestalde, adierazle ekonomiko eta sozialak daude: *balio erantsiak* flota bakoitzak sortzen duen aberastasuna neurtzen du termino monetarioetan; *ontzidiek sortzen duten enpleguak* flota bakoitzak lanaldi osoaren baliokidean zenbat lanpostu sortzen duen zenbatzen du; *flota bakoitzaren lan kostuak* ontzidi bakoitzean lanaldi osoaren baliokideko lanpostu bakoitzak duen kostua neurtzen du; *ustiapen soberakin gordinak* sektore bakoitzak kostuak kendu ostean sortzen duen balio erantsia neurtzen du, hau da, sektore bakoitzaren errentagarritasun ekonomikoa; eta azkenik, *dirulaguntza publikoarekin*, flota bakoitzak jasotzen dituen dirulaguntza publikoak neurtzen ditu. Puntu honetan dago ikerketaren

Hondoko arraste-ontziek bakarrik, izan itsas zabal zein industrialak, arrain gazteen harrapatzeen erdia baino gehiagoren ardura dute

gakoetako bat, izan ere, Ekonomia Lan-kidetzeta eta Garapenerako Erakundeak (ELGE, ingelesez OCDE) zeharkako dirulaguntza gisa aitortzen ditu zerga kargak arintzen dituzten kenkariak. Horien artean, produktu energetikoen kontsumoari buruzko barne zergaren (TICPE) karga arintzea kontuan hartu du ikerketak, beste ikerketa batzuetan egiten denaren kontrara. Ikerketaren emaitzetan berebiziko aldaketa eragin du aldagai horrek, ikusiko den antzera.

INGURUMEN ERAGIN HANDIENA ETA TXIKIENA DUTEN ARRANTZA MOTAK

Baina ontzidiez ari delarik, zer adierazi nahi du ikerketak? Arrantza moten sailkapena egin du ikerketak, hala, bakoitzak dituen emaitza sozio-ekonomiko eta ingurumen-inpaktu zehatzak arrantza teknika eta tamaina bakoitzarekin lotu, eta eraginkorrenak eta jasagarrienak direnak eta ez direnak ondo ebazteko. Arrantza teknikei dagokienez, lau multzo handi daude: arte geldoak, dragak eta lanbide polibalentek, arraste-sare eta senu pelagikoak, eta hondoko arraste-sare eta senuak. Aldi berean, hiru multzo egin dira ontzien tamainaren arabera: itsasbaterrekoak, 0-12 metro artekoak; itsas zabalekoak, 12-24 metro artekoak; eta industrialak 24 metro baino luzeagoak.

Ikerketa teknika eta arrantza eredu bakoitzaren emaitzak aldagaiz aldagai, edota aldagai multzo txikika ematen ditu. Hala, neurritz kanpoko ustiapenean, 12 metro baino gehiagokoak diren eta nagusiki arraste-sarearen teknika erabiltzen duten ontziek dute ardura gehien. Arraste ontzi handiak, arrantzuriko bolumenta kontuan hartuta,

harrapatzen %62 ordezkatzen dute eta neurritz kanpoko ustiapenaren %84. Aldiz, arte geldoak praktikatzen dituzten arrantzale txikiak harrapatzen %10 ordezkatzen dute eta neurritz kanpoko ustiaketen %6.


Arrain gazteen arrantzari dagokionez, hondoko arraste-ontziek bakarrik, izan itsas zabal zein industrialak, arrain gazteen harrapatzen erdia baino gehiagoren ardura dute. Kontrara, aparailu geldoek ale gazteen gaineko aztarnaren %22 ordezkatzen dute (eta horietako %9 soilik itsasbazerrekoek).

Arraste-sareko ontzidien gehiengoak dirulaguntza publikoen menpeko errentagarritasuna du, errentagarritasun artifiziala, eta dirulaguntzei esker bizi da

Itsas hondoen urradura aztarnari dagokionez, ikerketak ondorioztatzen du Atlantikoaren ipar-ekialdean jarduten duten Frantziako flotek 500.000 eta 800.000 km karratu arteko itsas hondoa karrakatzen dutela urtero, batez beste 600.000: hau da, Frantzia metropolitanoaren azalera bezainbeste urtero. Horietatik %90 hondoko arraste-sareen eta senuen erabilerari lotua dago, eta soilik %6 draga polibalenteei. Hondoko arraste-sareen aztarna, berriz, bereziki handia da itsas zabaleko ontzien eta ontzi industrialen kasuan, %52 eta %22, hurrenez hurren.

Espezie zaugarrien gaineko aztarna da emaitzen joera orokorra hausten duen aldagaia. Txostenak dio horri lotutako estimazioek oraindik ere ziurgabetasun handia dutela, baina litekeena da espezie sentiberen harrapatzen hiru laurden baino gehiago sare eta amu arrantzarekin lotuta egotea. Ontzien neurria gehituta, badirudi aipatutako harrapatzen erdia baino gehiago dagokiola itsas bazerreko arte geldoen ontziei. Arte horien artean badira ere diferentziak, itsas ugaztunen harrapatzeak itsasbazerreko arrantzari lotuak baitaude, eta amu arrantzak txori gehia-

3 arrantza tekniken konparatiboa



Itsasbazerreko arte geldoak (12 m petik)



Arrantza industrialia hondoko arraste-sare eta senuak (12-24 m)



Arrantza industrialia arraste-sare eta senu pelagikoak (24 m baino +)



ITURRIA: "Norabidez aldatu: arrantzaren trantsizio sozial-ekologikoaren alde" ikerketa, Blom elkarte.

go: arrantzatutako 1.000 tonako 100 eta 200 itsas ugaztun eta 1.000 txori artean, azken teknika horrekin. Kontrara, eta logikoki, nasen kasuan ez da ia halako harrapatzerik.

Azkenik, CO₂aren isurketen neurketek ere noranzko berean egiten dute, industria eta itsas zabaleko hondoko arraste-arrantzak CO₂ isurketen zati

handienaren iturri baitira: isurketen %57, jakinda arrantzatutakoaren balioaren %34 ordezkatzen dutela, sare mota hauek tiratzeko trakzio potentzia handia behar baitute. Kontrara, aparailu geldoek eta flota pelagikoek isurketen %17 eta %12 ordezkatzen dute, baina arrantza balioaren %34 eta %11 ordezkatzen dute, hurrenez hurren.


ARRANTZA ARTISAUAK SORTZEN DU ENPLEGU GEHIEN

Adierazle sozioekonomikoetara igarota, arrantza txiki eta artisauak aurea hartzen dio arrantza handi eta industrialari. Hasteko, arrantza artisauak itsas zabaleko eta hondoko arraste-ontzi industrialek baino bi eta hiru arteko enplegu gehiago sortzen du. Jarraitzeko, arrantzatutakoak sortzen duen balio ekonomikoari erreparatuta, itsasbaterreko sareek, amu hariiek eta nasek hondoko arraste-ontzi eta senu industrialek baino bi aldiz balio erantsi gehiago sortzen dute. Are eta amaitzeko, kapitalaren inbertsioaren errentagarritasunaren ikuspuntutik ere, esplotazioaren soberakin gordinari, kapitalaren irabaziak sortzeko gaitasunari erreparatuta, ikerlariak erakutsi dute inbertitutako kapital unitate bakoitzeko errentagarritasun onena duten flotak direla itsasbaterreko zein industria sare, amu-hari eta nasak, itsasbaterreko arraste-sare pelagiko ttipiak eta draga flotak. Arraste-sare eta senu industrialak baino 3-4 aldiz errentagarriagoak dira.

Hau dena kontuan hartuta, ze arrantza eredu laguntzen dira dirulaguntza publikoekin? Bada, bai, asmatu duzu: itsas zabaleko arrantzak dirulaguntzen %55 eskuratzen ditu, eta industrialarekin batera %85 osatzen du. Edo bestela esanda, arrantzaturiko kilo bakoitzeko, hondoko arraste-sare eta senu ontziek 50 eta 75 zentimo arteko laguntza jasotzen dute, eta gainontzeko flotek, kilo bakoitzeko 30 baino gutxiago. Hau horrela da, aipatu bezala, zerga kenkariak dirulaguntzen artean kontuan hartuta; hori egin gabe irudia guztiz bestelakoa zatekeen.

Hala beraz, “zentzugabekeria” hori borobiltzeko, arraste-sareko ontzidien gehiengoak dirulaguntza publikoen menpeko errentagarritasuna du, errentagarritasun artifiziala, eta dirulaguntzei esker bizi da, ikuspegi ekologiko eta sozio-ekonomikotik defizitarioa den bitartean. Kontrara, arrantza txikia eta artisaua ez da menpekotasun horri esker bizi.

Horren guztiaren aurrean, bai Fréjavillek eta bai Belaustegik hainbat proposamen egin dituzte. Alde batetik, Bloomeko kidearen arabera, “arraste-sarea, eta bereziki hondoko arraste sarea erabiltzen duten ontzi industrialen dirulaguntza sistema deseraiki behar da, ikerketaren arabera, kaltegarria baita”. Horretarako, biek diote Europako



DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

Itsasbaterreko sareek, amu hariiek eta nasek hondoko arraste-ontzi eta senu industrialek baino bi aldiz balio erantsi gehiago sortzen dute

erabaki-gune politikoetara jo beharra dagoela, esaterako Fréjavilleren esanetan, “eztabaida oso eraikitzaileak” eman baitira han txosten honen inguruan.

Europari eutsita, Belaustegik dio azkenaldian Mediterraneoan ematen ari den egoerara iritsi aurretik neurriak hartu beharra dagoela Euskal Herrian, Europako kuota oso zorrotzak ezarri

baititu Mediterraneoeko itsasoan egoera kaskarraren ondorioz, eta arrantzaleak kinka larrian geratu dira.

Horretarako, “lagunak eta aliatuak bilatu behar dira hemen. Gizartearen kontzientzia piztu beharra dago, orain arte soilik sektorean izan gara kontzientzia itsasoan gertatzen ari denaz”. Zentzu horretan, biek ala biek bat egiten dute arrantza txikian eta artisauan kokatzen etorkizun jasangarria ekologikoki, sozialki eta ekonomikoki. Mutrikuko arrantzaleak adibide zehatz bat ematen du horretarako: itsasbaterrean 12 itsaso-miliako babesgunea ezartzea arrantza handi eta industrialik gabe.

Fréjavilleren arabera, jarduerak aldarazteko helburuarekin, arrantzale artisauak sistematikoki txertatu nahi dituzte egin beharreko bide-orrian, eta horretarako, besteren artean, Euskal Herriko arrantzaleekin ari dira lanean. ●